

# txi kitto!



**HODEI EZPELETA**

**NOLAKO ZURA**

**HALAKO EZPALA**



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa  
Luz eta Ana Aizpurua.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Txis teak

- ✓ Bazen behin igel bat ipurditik arnasten zuela, eta egun batean eseri zenean hil egin zen.

Irene Cabrera



- ✓ Jaimitok aitari:
  - Aita, zer sentitzen da seme eder bat edukitzean?
  - Ba galdetu aitonari!

Hugo Sagalá



- ✓ Arrain batek beste bati:
  - Badakizu bi segundoko memoria besterik ez dugula?
  - Zer?
  - Zer, zer?

Ainhoa Esteban



- ✓ Kontatuko dizuet txiste bat alderantziz?
  - Baiiii!!!
  - Ba orduan hasi barre egiten!

Kemen Miguel





✓ Japoniar bat Euskal Herrira dator, euskera pixkat ikastera. Joaten da taberna batera eta entzuten du:

- Labana! Labana!  
Parkera doa eta entzuten dio ume bati:

- Bai, bai!!

Eta gero beste bati:

- lupii, iupii!!

Gero joaten da mendira eta hildako bat aurkitzen du. Polizia etorri eta galdetzen diote:

- Zuk hil duzu gizon hau?

- Bai, bai!!

- Nola hil duzu?

- Labana, labana!!

- Kartzelara zoaz!

- lupii, iupii!!



**Silvia Marquez**

✓ - Fokek zergatik begiraten dute eszenatokietan beti goruntz?

- Fokoak daudelako.

**Ekain Sousa**



✓ - Zein perfume erabiltzen du Supermanek?  
- Superfume


**Mikel Luengo**



✓ - Zer esaten dio semaforo batek beste bati?

- Ez bagiratu, aldatzen ari naiz eta!

**Unai Alfageme**



# Denborapasak

## Hizki-zopa

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J | I | R | A | F | A | O | R | I | Z | U | R | D | E | A | D | B | S | I |
| L | C | K | U | A | Z | I | T | S | N | R | E | G | D | B | M | K | Z | C |
| F | G | U | O | A | L | E | S | B | M | D | N | R | K | Z | C | E | S | I |
| C | L | B | E | H | I | A | N | S | I | K | B | M | N | Z | R | I | S | C |
| B | C | L | I | V | E | R | B | Z | S | M | U | B | G | H | T | G | C | E |
| T | Z | T | U | N | M | B | R | S | M | N | G | H | G | C | E | E | T | B |
| U | C | S | E | T | A | U | M | B | R | G | G | C | H | T | Z | L | D | A |
| T | O | A | U | Z | C | B | Z | U | M | H | A | E | T | A | H | A | L | H |
| S | U | Z | B | A | D | U | M | H | A | G | R | E | G | D | D | L | H | U |
| Z | C | B | U | M | D | M | U | H | A | T | R | N | D | L | E | B | Z | O |
| A | U | D | C | Z | O | A | H | U | N | M | U | O | O | E | D | L | C | A |
| D | O | T | U | M | C | Z | A | U | T | A | K | A | O | D | E | L | L | E |
| M | O | C | Z | A | H | U | U | M | J | F | A | R | H | S | Z | I | R | U |
| D | T | Z | N | M | A | H | G | R | U | M | X | U | A | Z | C | I | R | U |
| U | M | L | E | H | O | I | A | E | O | U | T | I | G | R | J | R | R | O |
| L | L | M | N | I | O | A | H | U | N | X | M | U | E | G | A | F | J | X |
| X | L | D | E | L | O | I | U | M | H | A | C | X | Z | T | E | E | T | Z |
| S | U | I | J | F | X | F | J | N | M | A | R | R | A | Z | O | A | C | X |

### ANIMALIAK

- Jirafa
- Izurdea
- Ahuntza
- Behia
- Igela
- Ahatea
- Txakurra
- Katua
- Lehoia
- Marrazoa

Malen



## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Amets Vega** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta ...eta kitto!ko kamiseta eraman ditu Ametsek etxera. Zorionak!



## 7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK EKAINAK 30 BAINO LEHEN.  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena .....

Adina ..... Tel.....

# Denborapasak

## Sudokua


|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 4 |   |   | 9 |   | 8 |   | 1 |
| 3 | 9 | 1 |   | 6 |   | 5 |   |   |
|   |   |   |   |   | 5 | 3 |   |   |
|   | 5 | 6 | 8 |   | 2 |   |   | 7 |
| 4 | 3 | 9 | 6 |   |   |   | 2 |   |
| 8 | 7 |   | 9 |   | 4 |   |   |   |
| 7 |   |   | 4 |   |   |   | 1 |   |
| 6 | 2 |   |   | 2 | 9 | 7 | 8 | 4 |
| 9 |   | 4 | 3 | 7 |   | 2 |   |   |

Swati Zubiare

## Hizki-zopa

| KOLOREAK |   |   |   |   |   |   |   |  |  |         |
|----------|---|---|---|---|---|---|---|--|--|---------|
| A        | H | J | P | N | T | U | X |  |  | Berdea  |
| J        | L | O | U | S | M | V | Z |  |  | Arroza  |
| N        | B | E | R | D | E | A | I |  |  | Urdina  |
| A        | O | I | D | I | U | I | O |  |  | Horia   |
| R        | H | A | I | K | A | G | H |  |  | Laranja |
| A        | E | U | N | I | B | E | D |  |  |         |
| L        | J | V | A | Z | A | C | F |  |  |         |

Paula



**IZENAK**

Hodei

**ABIZENA**

Ezpeleta

**JAIOTERRIA**

Eibar

**JAIOTEGUNA**

1999ko irailaren 8an

- Itsasoa ala mendia? Biak asko.

- Gazia ala gozoa? Gazia.

- Pelikula bat? El señor de los anillos-en trilogia.

- Uda ala negua? Uda.

- Aizkoran egiteko gogoko duzun leku bat? Urtero joaten naizen hainbat leku, tartean Eibar, noski.

- Kolore bat? Urdina.

- Miresten duzun kirolari bat? Kilian Jornet (mendizale aparta).

- Animalia bat? Zaldia.

- Ametsetako oporrak nora? Zelandia Berrira.

- Zer 3 gauza eramango zenituzke irla desertu batera? Hegazkin bat, gasolina eta pilotoa etxera itzultzeko.

- Sekula jantziko ez zenukeen arropa bat? Tanga bat.

- Eta zure armairuan faltatzen ez dena? Kamisetak.

- Birziklatzen duzu? Bai.

- Euskara osasuntsu dago? Gure etxean bai behintzat.

- Zer egin bultzatzeko? Dakigunok hitz egin eta ulertzen dutenekin euskaraz egiten saiatu.

- Zerk pozten zaitu? Azterketak bukatzeak, lagunekin egoteak... gauza askok.

- Zerk haserretu? Nahi ditudan gauzak ez egiteak denbora faltagatik.

- Abesti bat? Under the bridge-Red Hot Chili Peppers.

- Gehien gustatzen zaizun jatekoa? Solomilloa arrautza patata frijitu askorekin.

- Eta gutxien? Mariskoa.

- Nolakoa da zure egun perfektua? Goiz jaiki, ondo entrenatu eta ondoren lagunekin egunpasaren bat egitea.

- Gogoan duzun egunik onena? Egun eder asko ditut... adibidez, Bizkaiko 2. Mailako txapela, nire lehen txapela, irabazi nuenean.

- Txistreak kontatu ala entzun? Entzun.

- Etorizunera begira, zertara dedikatzea nahiko zenuke? Aizkoran jarraituko dut, baina lan mundutik ez dut nire burua inon ere ikusten.

- Aizkora ez den beste kirol bat? Futbola.

# HODEI EZPELETA

Hodei Ezpeletak etxean bertan dauka maisua, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolari bikainaren semea da-eta. Umetxoa zela hartu zuen aizkora eskuetan eta gaur egun hara eta hona dabil txapelketa eta erakustaldietan; aurreko astean ... eta kitto!-k antolatutako Euskal Jaialdian ere bikain jardun zuen. Selektibitatea egin berri, unibertsitaterako bidean da Hodei.

# Sanjuanak 2017

## Badatoz oporrak!

Azkenean iritsi dira, hainbeste denboran zain egon eta gero!

Hemen ditugu sanjuan jaiak eta horiekin batera udako oporrak! Luze egin zaigu urtea baina lasai, merezitako atsedena hartzeko momentua iritsi da-eta.

Ondo ondo pasa! Urrian berriz ere ikusiko dugu elkar.

## EKAINAK 22, EGUENA

Arratsaldean AKEBAI Guinness Errekorra gainditzeko ekitaldia Untzagan. Festa ederra!

## EKAINAK 23, BARIXAKUA

**12:00:** Koadrilak elkartu eta Ustekaberekin kalejira Urkizuraino.

**13:00:** Lizarrako Dultzaineroei ongietorria Estaziño kalean. Kalejira Untzagaraino.

**13:30:** Udaletxetik pregoia eta txupinazoa.

**17:30-20:30:** Puzgarriak Urkizun.

**17:00-21:00:** Klarion-tailerra. San Juanetako munduko kartel handiena.

**17:30:** Untzagan koadrilak elkartu eta kalejira Itzioko parkeraino.

**18:00:** Koadrillentzako jokoak Itzioko parkean.

**19:00:** Tokyo Brass Style Japoniako bandaren ikuskizuna / Urkizutik kalejira buruhaundi eta erraldoiekin eta Dultzaineroekin / Untzagatik kalejira Irulitxa fanfarrearekin / Ego Gain kalean "Sefini" kale-antzerkia Trapu Zaharra taldearen eskutik.

**23:00-04:00:** Berbena Lisker taldearekin Untzagan.

**23:00:** Dantza Garaikidearen dantza-ikuskizuna eta San Juan Sua. Untzagan.

**24:00:** Nagusien Danborrada. Untzagatik hasita.





## EKAINAK 24, ZAPATUA

**11:00-14:00 eta 18:00-21:00:** “Xic del Xurrac” haurparkea Untzagan Tomb Creatius taldearen eskutik / “El viaje” antzezlan.

**18:30:** “Walkman” ikuskizuna Untzagan, Ganso taldearen eskutik.

**19:00:** Umeen Danborrada Urkizutik.

**20:30:** Umeen Pregoia eta Alardea Untzagan.

**22:00:** Erromeria Untzagan Jainaga eta Narbaizarekin.

**23:30:** Soka Dantza Untzagan Kezka Dantza Taldearen eskutik.

**24:00:** Suzko erroberak.



## EKAINAK 25, DOMEKA

**11:00-14:00 eta 18:00-20:00:** “Circomatik” haurparkea Untzagan, El Negro y el Flaco taldearen eskutik.

**11:30:** XXIV. Marmitako Lehiaketa Untzagan.

**13:00:** Txistularien Alardea, Untzagan.

**18:00:** Urkizutik kalejira buruhaundi eta erraldoiekin / Untzagatik Africa Baj Yay taldearekin kalejira.

**19:30:** BANDtzaldia Erromeria Eibarko Banda, Aiko eta Kezkaren eskutik Untzagan.

**23:00:** Suzko erroberak.

## EKAINAK 27, MARTITZENA

**16:30:** Txokoladata umeentzat Karmen kaleko parkean.

**17:00:** Haurrentzat jolasak Karmengo parkean.

**19:00:** Gorriti eta bere abereak Karmengo parkean.





# PINABURU HONTZA

Mendian naturaz gozatu, ibili, jolastu eta gauza asko egin daitezke... eta orain eskulanak ere bai!

## MATERIALA

- ✓ Pinaburuak
- ✓ Naturak eskaintzen dizkigun elementuak (hainbat koloretako hostoak, harriak, adarrak, gaztainak)
- ✓ Errotulagailuak
- ✓ Kola
- ✓ Pintzela
- ✓ Tenperak
- ✓ Guraizeak
- ✓ Kartulinak



## PAUSOAK

- 1.- Naturako elementuak bildu. Tartean, noski, pinaburuak.
- 2.- Pinaburuari gustukoen duzun kolorea eman.
- 3.- Hontzaren begiak eta mokoia paperean edo kartoian marraztu eta moztu ostean, pinaburuan itsatsi.

**Ti-ta!**


# TXALUPATXOA

Mendian egindako buelta aprobeztatzuz, makiltxoak batu beste eskulan bat egiteko: txalupatxoa! Neurri bereko makilak batzen saiatu zaitez edo, bestela, maila berean moztu ditzakezu. Makilei azala kendu eta azal hori makilak lotzeko soka moduan erabiliko dugu. Makilak elkarren alboan jarri, lotu eta masta jarriko diogu txalupatxoari. Mastaren goian oihal bat ipini eta errekan jolasteko prest egongo da!



# CLAFOUTISA

Gereziak gustuko badituzu, Clafoutisak txundituko zaitu! Oso azkar eta erraz egiteko errezeta da. Flanaren itxura dauka eta beste fruitu batzuk ere erabili daitezke: sagarra, madaria, okaranak... Ah, eta gereziei hezurra utzi, Clafoutisari zapore berezia ematen diotela esaten dute-eta!



## OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT):

- ✓ 2 arrautza
- ✓ 80 g azukre
- ✓ 30 g almendra birrindu
- ✓ 20 g irin
- ✓ 100 ml esne
- ✓ 200 g gerezi
- ✓ Koilarakada erdi banilla esentzia



## PAUSOAK

- 1.- Osagaiak prestatu. Labea piztu (180°). 20 cm-ko molde baxuan gereziak jarri.
- 2.- Osagaiak nahastu. Arrautzak, azukrea, esnea eta banilla irabiatu. Almendra birrindua eta irina iragazi eta gehitu. Dena nahastu ondo integratuta egon arte.
- 3.- Nahasketa moldera bota. Gereziak mugitu egingo dira, beraz, ondo jartzen saiatu emaitza politagoa izateko.
- 4.- Labean sartu. Erdialdean kokatu 30 minutuz edo mamitu dela ikusi arte. Epeltzen utzi. Egun batetik bestera utzita ederra egongo da.

# MELOI IRABIAKIA



Udako beroari aurre egiteko, freskagarri gozo eta osasuntsua prestatzeko gonbidapena luzatzen dizugu. Meloi bat, bi jogurt natural, edalontzi erdi esne gaingabetu, ezti apur bat eta menta hosto gutxi batzuk behar ditugu. Meloia zuritu eta haziak kendu ostean, koilara batekin okela kendu eta irabiatzeko makinan sartu. Jogurta, esnea, ezti eta menta hostoak gehitu. Gustuko sendotasuna lortu arte irabiatu eta hozkailuan sartu. Azkenik, hosto batekin edaria apaindu.



### Baietz AKEBAI

Ekitaldi polita izan genuen **ITURBURUN**, ikasle eta irakasle guztiok "Akebai" ekintzaren alde jarri ginenean. Jolastokian bideotxo bat grabatu ziguten ekintza honen alde agertuz. Herri osoari zabaldu nahi diogulako Guinness Errekorra gainditzeko gai izango garela. Gure kamiseta gorriekin denok ahobatez esan genuen: "EKAINAREN 22an DENOK UNTZAGARA!".

Maiatzaren 9 eta 10 ean, **URKIZU**ko 2. zikloko ikasleak Arrizuloko Aterpetxera joan ziren.

Maiatzaren 15ean, 4 eta 5 urtekoak Coliseoan egon ziren "Txontxo Dragoi Txikia" ikusten.

Maiatzaren 18 eta 19an, 1go eta 2.mailako ikasleek Piraten etxea bisitatu zuten. Nahiz eta eguraldiak asko lagundu ez, primeran pasatu zuten. Eta ekainaren 1ean, Urkizuko 3, 4 eta 5 urteko ikasleak Oñatiko Natur Eskolara joan ziren.



**ALDATZE**ko ikasleek kurtso bukaera mugitua dute aurten ere, maila guztietan antzerkiak, bertso-saioak, txangoak eta bi egunetako irteerak egiten ari dira. 1. eta 2. mailakoak Sastarrainera joan ziren, Eibarko sargoritik ihes egiten, bi egun zoragarri pasatu zituzten animalia eta baratz artean. 3., 4., 5. eta 6. mailakoak Beiren

egon ziren, Erdi Aroko tailerrak ikusten, Gaztelua bisitatzeko... Horrez gainera, 4. mailakoak Coliseoan egon ziren bertso-jaialdian, animaliei buruzko bertsoak kantatzen. 6. mailakoek Unibertsitatean bi antzerki saio egin zituzte, bata euskeraz eta ingelesez bestea. Datorren astean eskolan bertso eta koro saio berri bat egiteko asmoa dakagu. Hau geldia ezina!!!!!!

Maiatzaren 27an **AMAÑA**ko Ikastetxeko hirugarren festa egunean zoragarri pasatu zuten. Nahiz eta eguraldi sargoria egin, ur jolasei esker haur eta nagusiek egun polita pasatu zuten. Goizean ume eta gurasoentzako jolas eta tailerrak egin zituzten, ondoren denok batera eskolako kiroldegian bazkaldu zuten eta arratsaldean "dantza-festarekin" gorputzak astinduz egunari amaiera bikaina eman zioten. Ume, familia eta irakasleen artean antolatutako festa honek

euskal giro batean murgilduta hizkuntza, kultura eta ohitura desberdinak elkar ezagutzeko eta batzeko balio izan du.



Kaixo **ARRATEKO ANDRA MARI** Ikastetxetik! Maiatzean hainbat irteera eta ekintza interesgarri egin ditugu: HH-ko 5 eta LH-ko 1. ziklokoak Sastarrainen egon ziren maiatzaren 8

eta 9an. 4 eta 5 urtekoak maiatzaren 15ean Coliseora joan ziren, "Koko dragoi txikia" filma ikustera. LH-ko 5. eta 6. mailakoak, maiatzaren 25ean, bertso-jaialdian parte hartu zuten Coliseoan. Hauek bai hauek bertsolariak!!! Ekainaren 1ean eta 2an, LH-ko 2., 4. eta 6. mailako ikasleak Kontsumo tailerrak izan dituzte eskolan bertan. Hainbat gai landu dituzte: frutak eta barazkiak, litxarreriak, energia, elikagaiak eta osagaiak, bideo-jokoak eta teknologia berriak, besteak beste. Ikasturtea bukatzeaz dago eta buru belarri gabiltza lanean kurtso amaierako jaialdia eta azken eguna prestatzen.

**LA SALLE**koak maiatzean zehar aurrera eta atzera ibili gara! 3.mailakoak ogigintza izan zuten eta bertan baratzean, oilotegian eta opil bana egiten eman zuten eguna. 4. mailakoak Artzain mundura joan ziren animaliekin nola egiten den lan eta bertatik zein produktu ateratzen ditugun ikustera. Maiatzaren 16an, 5.mailakoak talogintzara eta 6.mailakoak Txuri Urdinera joan ziren. Alde batetik, talogintzan, irina nola ateratzen zen ikusi ondoren, taloak egin zituzten eta bakoitzak egindako talo ederra jan zuten. Bestalde, Txuri Urdinean patinatzen eman zuten goiz osoa Donosti aldean eta ipurdiko galantak hartu zituzten. 2. mailakoek Unibertsitate Laboralean "Caperucita, lo que nunca se contó" antzerkia ikusteko aukera izan zuten eta horrez gain, 17an, ipurterre lehiaketako sari-banaketara joan ziren Irene Alonsok, (2.mailako ikasleak) irabazitako saria jasotzera eta sorpresa itzela izan zen magoa eta guzti izan zutela! Pila bat gozatu zuten ekitaldiaz!






### EURIA EGIN ONDOREN (6 URTETIK AURRERA)

Alegia moderno honetan uholde batek hartuko du basoa, eta hango biztanleak aurrera ateratzeko ahaleginean ariko dira behin-behineko babesleku batean. Azeri ttiki batek bere burua eskainiko du jana eta ura bilatzeko, baina taldea ez da fidatzen ez haren gaitasunez ez asmoez, eta beste batzuei ematen dizkie lan horiek.



### BIDAIA (8 URTETIK AURRERA)

Album honek tragediatik eta anabatatik ihes egin duen familia baten gorabeherak islatzen ditu fintasun paregabearekin. Francesca Sanna ilustratzaileak modu sotil baina sendoa gogorarazten digu soilik borondatearen indarrak eta itxaropenak bultzatuko gaituztela aurrera ezbehar latzenetan.




### XOLA ETA LAPURRA (10 URTETIK AURRERA)

Xola nag-i-nagi dago etxean etzanda eta auzoko telebista aparatu batetik entzuten du ahots bat: "Eskuek hitz egiten dute! Eta hankek ere bai, baita begiek ere! Eta sudurrak! Eta bihotzak... bihotzak zer esanik ez!". Gero gangster batzuk entzuten ditu lapurretan, eta beste ohi batzuk ere entzuten ditu eraikineko ezkaratzetik datozenak. Xolaren burua lanean ari da ordurako.



### TXANOGORRITXUREN ESKULARRUAK (6-8 URTE)

Istori hau ez da betikoa eta horrek harritu egiten du irakurlea eta nahasirik uzten du neskatoa. –Hauxe gauza bitxia! –esan zuen Txanogorri, txanoa janzen zuela-. Nire ipuinean sekula ez du elurrik egiten!



### ARRE! ARRE! (7-10 URTE)

Osaba Pirulok zaldia eta astoa ditu. Zaldiaren izena Kaxinto da, eta astoarena, Petra. Kaxinto zaldi ederra da eta osabak bere gainean trostan ibiltzen ditu ilobak. Petra, berriz, makilaz jotzen du; gutxietsi eta mespretxatu egiten du zaldi gorriaren ondoan. Eta umeez lastima handia sentitzen dute.



### GILEN ETA KAKAPIRRI TALDEA (10-12 URTE)

Gilenen gurasoek etxez aldatzea erabakitzean, haren bizitza zeharo aldatuko da egoera berrira egokitu beharko duelako, ikastetxe desberdinean eta beste lagun batzuekin. Hala ere, gutxien espero duena da Fede, ikasgelako harroputza, beraren aurka hastea. Eta gelako ikaskideek haren irainak etsipenez onartuko zituztenik ere ez zuen pentsatzen. Baina denak du muga, eta Gilenek plan bat martxan jarriko du.




Globo-arraina bizirauteko puzten da, defentsa moduan. Mehatxua igartzen duenean ura irentsi eta globo bat moduan puzten da, harrapakarien ahoan sartu ez dadin.



Bekainek euritik eta izerditik babesten gaituzte. Horixe da euren funtzio nagusia, izerdia eta ura begietatik aldentzea.



Japonian propina ematea edukazio txarrekoa da.



Ordenagailuaren teklatuan komunean baino askoz bakterio gehiago dago.



Kafea da munduan gehien edaten den bigarren edaria, uraren atzetik.



Txinpantzeek gizakiok baino memoria hobegoa dute.



Animalia haragijale eta belarjaleak bereizteko modua hauxe da: haragijaleek (txakurra, lehoia...) buru erdian dituzte begiak; belarjaleek (hegaztiak, untxiak...), berriz, buruaren alboetan.



Pertsona batek, asteen, 25 mila aldiz kliskatzen ditu begiak.



Naturak sortu duen materialik gogorrena armiarma-sarea da.



1800. urtera arte ezkerreko eta eskumako oinetakoak ez ziren bereizten, oinetako berberak ziren bi oinentzat.



Gurasorik gazteenek 8 eta 9 urte zituzten eta Txinan bizi izan ziren XX. mende hasieran.



Los Angeles hirian jendea baino automobil gehiago dago.



# BLACK SAM

**S**amuel gazte ausarta zen. Pirata izan nahi zuen, baina ahula zenez piraten itsasontzietan ez zuten onartzen.

Egun batean, Samuel, pirata itsasontzi baten ezkutatu zen kupel baten barruan. Piratak itsasoratu zirenean, kupel barruan jarraitu zuen han gordeta zegoen janariekin elikatzen. Egunak pasatzen joan ziren eta aspertuta zegoenez etxera joan nahi zuen. Kupeletik ateratzean piratak ikusi zuten.

- Zer egiten duzu hemen mutiko?
- Pirata baten bizitza nola zen jakiteko zuen itsasontzian igo nintzen, baina aspertu naiz eta etxera joan nahi dut.
- Orain ezin zara joan, bihar “Barbanegra” piratari bere altxorraren giltza kendu behar diogu.



Samuel beldurturik kupel barruan sartu zen.

Piratak borrokatzen zeudenean, Samuel katuka atera zen kupeletik eta “Barbanegra” pirataren gerrikotik giltza hartu zuen.

Bere ausardiagatik piratek Samuel bere itsasontzian onartu zuten eta “Black Sam” ezizena hartu zuen.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**

**Martxel Oruezabal**



**zu margolari!**